

IRUTXULO 350 2L.,
2002-3-15

AUZOZ AUZO

Martutene

Mugi zaitez

Tai-chia, mantenimendu-soinketa, aerobica... Martuteneko Gaztelekuak auzotarrentzat antolatutako ikastaroek martxan dira. 70 lagun pasatxo ari dira ikastarootan. Batik bat emakumeak.

Aitor Urkizu Azuabarrena

Ikastarook urrian hasi ziren, eta ekainera arte luzatuko dira. Ikastaroak egiteko ideia Auzo Elkartean jaio zen. Bertako kideek, egunerokoaz nekatuta, eta beren aisialdia bete nahian, ikastaroak antolatzeari ekin zioten. Lehendabiziko ikastaroek izandako harrera ikusita, Auzo Elkarteko

kideek ekimen berriak darabiltzate buruan. Izan ere, beren esanetan, "auzoak behar duen alaitasuna eta mugimendua berreskuratu ditu". Ildo horietatik, eta jendeak antolatutako ekintzetan parte har dezan, ekimen berriak antolatuko dituztela gaineratu digute.

Orain arteko ikastarootan

Tai-chiak jendearen arreta piztu du

emakumeek protagonismo handia izan dute, izan ere, koordinaketan zein gidaritzan emakumeak ari dira. Parte hartzaile guztiak, gainera, emakumeak dira. Auzo Elkarteko kideen esanetan, "emakumeek antolatutako ikastaroerik, bizitasuna eman zaio auzoari".

Jarduera erakargarriak

Tai-chiak eta mantenimendu-soinketak jendearen arreta piztu dute. Tai-chi ikastaroan, lasaitze eta luzatze ariketak



egin ohi dituzte. Gainera, besteak beste, gehiegizko tentsioa eta lepoko miñak sendatzeko oso egokia da. Bestalde, ehorziri ikastaroa aipatu beharra dago. Bertan besaulkietan jartzeko hari farfailak egin ohi dira. Jatorriz, Cacereseko Acebo herrikoak omen dira ehorziriok. Martutenen herri horretako biztanle asko bizi dira, eta ikastaroak auzotarraren artean oso harrera ona izan du. Mantenimendu-soinketa eta aerobiciari dagokienez, hiru urtez soinketa ikastarora joandako auzotar batek dioskunez, "ekintza hauek, betiko monotoniatik irteteko egokiak izateaz gain, oso onak iruditzen zaizkit, hasi eta bost minutura izerditan blai baitzaude. Eta interesatzen zaiguna hori da, astean birritan kirol apur bat egitea". Ikastarootan parte hartzeko Martuteneko Gaztelekura dei dezakezu. Mugi zaitez.



Azkenaldian ikastaro ugari antolatu dira auzoan.

ARISTEGI EZEIZA, S.L.

AXULEIUAK • KOMUN-ONTZIAK • KANILAK • HIDROMASAI
BAINU ETA SUKALDE ALTZARIAK • DUTXA-ITXITURAK
SAUNAK • HORMA-ARMAIRUAK • BAINU OSAGAIK

PROIEKTUAK • ERMANDATEAK • DEKORAZIOA
• BAINUGELA ETA SUKALDERAKO ERAIKUNTZA MATERIALAK

Zubieta 13 • 20007 DONOSTIA

• e-mail: aristegi@euskalnet.net • TEL/FAX: 943 456001

